

Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrek astearte goizetan egiten du ohiko bilkura. Alkatea da burua, baina horrek beste kide bat eskuordetu dezake presidentziarako, eta zazpi zinegotzi ordezkariak dira Gobernu batzarkide. Horrela legeak agindutakoa betetzen da; izan ere, legearekin bat gehienez ere zinegotzi guztien herenak osa dezake Tokiko Gobernu Batzarra, alkateaz gainera (Iruñean 27 zinegotzi dira). 2014an, Tokiko Gobernu Batzarrek 71 bilera egin zituen. Bilkura haietan, 511 erabaki hartu ziren.

	2010	2011	2012	2013	2014
Ohiko bilerak	47	46	45	44	47
Ezhoiko bilerak	1	2	-	1	-
Ezohiko eta premiazko bilerak	24	10	23	27	24
GUZTIRA	72	58	68	72	71
Hartutako erabakiak	715	576	442	467	511

Tokiko Gobernu Batzarra izan da Iruñeko Udaleko kide anitzeko organoen artean lehena espediente guztiak elektronikoki bideratzean. Urtarriletik, Batzar horretako kide diren zinegotziek elektronikoki aldeztu aurretik kontsulta ditzakete, Udal-espedienteen Kudeatzailearen bitartez, batzarrean eztabaidatuko diren edukiak. Irailaz geroztik, halaber, udal-batzorde informatiboak ere digitalizatu ziren: "Lehendakaritza", "Herriaren Aferak", "Hirigintza", "Irakokizunak eta Erreklamazioak" (bi hilabete behin), "Kontuak" (sei hilabete behin) eta "Kontratazioak zaintzekoa" (hiru hilabete behin).